

# Zorionerako hezi

## 7. saioa

Gaur egun, sarritan, 'zoriontasuna' kontzeptua beste hainbat kontzepturekin nahastaten da eta zentzua galdu egiten du. Horregatik, saio honetan, hausnarketa egin nahi dugu, guretzat zoriontasuna benetan zer den eta gure seme-alabak Jesusek proposatzen digun zorionerako nola hezi ditzakegun ikusteko.

### SAIOAREN HELBURUAK

Helduak:

- Zoriona niretzat benetan zer den aitortu eta Jesusen zoriontasunerako proposamenarekin alderatu
- Jesusen estiloko zoriontasunean hezteko irizpideen inguruan hausnartu

Haurrak:

- Benetan zerk egiten gaituen zorioneko antzeman

### GARAPENA

Hasteko, denok gaudela, bost minutu hartuko ditugu aurkezpena egin eta saiora nor eta nola etorri garen ikusteko. Jende berria egonez gero, geure buruaren aurkezpena egingo dugu.

Eragileak egingo du sarrera, ondorengo hitzak edo antzerakoak erabiliz:

Denon nahia da zorioneko izatea baina, jakina, lortzen ez duen jende asko dago. Badago zoriona gozamenean jartzen duenik, edo edukitzean, edo okerrago, "besteak baino gehiago edukitzean", edo iraganeko gauzetan edo iritsiko direnetan... Zer zerikusi du horrek zorioneko izatearekin? Egiten, pentsatzen, esaten edo sentitzen duenagatik pozik, asebate dagoenaren egoera da zoriontasuna. Eta geuregan dugu delako egoera hori lortzeko behar dugun guztia.

Guraso bezala, gure seme-alabak zorioneko izan daitezela da bihotzez nahi duguna. Baina, nola lortu? Zoriontasuna edukitzean aurkitzen dela uste duenak, kontu korrontea irekiko dio, edo milaka jostailu erosiko, edo era askotako kapritxoak aseko... Benetan, hori ote da bidea?

Gure zoriontasun-ereduaren inguruko galdera egingo dugu: zerk egiten nau zorioneko?, zerk asetzen nau?, zer ez nuke inondik ere aldatuko?, benetan, zerk egiten nau zorioneko bizitzan?

Ostean, banandu eta bi taldetan jardungo dugu, haurrak alde batetik eta nagusiak bestetik. Azkenean, berriz elkartuko gara.

## HELDUAK

Helduen taldean, 'zer da zoriona' eta 'zer da zorioneko izatea?' galderen inguruko erantzun edo ideiak emango dituzte. Astia eman, gauzak esateko.

"Zoriontasunaren kiniela" egingo dugu ondoren. Lehenik eta behin, bakarka bete dezatela eta, gero, batera jarri, eztabaidan jardun eta iritzia emateko.

Eragileak "Zoriontasuna eta osotasun pertsonala" testua erabil dezake elkarrizketa bideratzeko. Garrantzitsua da, gainera, gure seme-alabei zein zoriontasun-eredu transmititu nahi diegun hausnartzea eta adieraztea.

## HAURRAK

Ariketa erraza egingo dugu hurrekin. Bakoitzari bi emotikono emango diegu: 'emotikono zoriontsua' eta 'emotikono tristea'. Eragileak esaldiak, egoerak... adieraziko ditu eta beraiek, emotikono zoriontsua edo tristea altxatuko dute. Honako esaldiak izan daitezke: "Amari mahaia ipintzen lagundu". "Jostailu asko izan". "Haur batekin borrokan egin". "Adiskideekin jolastu". "Aiton-amonei lagun egin". "Txangoan joan mendira, hondartzara...". "Urruneko senide edo lagunei bisita egin". "Nire gauzak inori ez utzi"... Jesusek gu zorioneko izan gaitezela nahi duela nabarmenduko die eragileak hurrei eta hori lortzeko jokaera jakin batzuk proposatzen dizkigula.

Guzti horren inguruan jardun ondoren, eskulana egiteko esango diegu, beharrezko materiala –errotuladoreak, margoak, kartulinak, guraizeak...- banatzeaz batera. Eskulanaren bitartez, bizitzako gauzarik politena", "ondo, pozik, zorioneko sentiarazten nauena" irudikatuko dute.

## DENAK BATERA

Heldu eta txikiak elkarrekin daudela, Zoriontasunen inguruko bideoa (<https://www.youtube.com/watch?v=QSjfnAyObRY&feature=youtu.be>) ikusiko dute (edo Zoriontasunen pasartea irakurri Bibliatik). Jesusek egiten digun zorion-proposamena horixe dela azalduko die eragileak. Zer diosku proposamen horrek? Zer deritzogu? Familian komentatuko dugu galdera hauen laguntzarekin:

- Zein proposamen egiten digu Jesusek zorioneko izateko?
- Jesusengan sinistek, zorioneko egiten nau? Ni pozik egotea da Jesusen nahia?

Amaitzeko, entzun ondorengo kanta hau; fedea zoriontsuago izaten laguntzen digula ulertzeko egokia da.

<https://www.youtube.com/watch?v=sdlqHZrwzj4>